

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko uztailaren 20a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Erdi Aroko astea ospatzen ari da egunotan ekitaldi aunitzekin.

Anibal Soravilla • «Albokaren berezitasuna arnasa etengabe hartu eta botatzean datza»

Pirinioetara ihes

Hondartzara edo mendira? Hauxe izaten da garai honetan behin eta berriro entzun beharreko galdera. Erantzunak era guztietakoak izaten dira; tartean, badira itsasoaren uraren bila doazenak eta mendian ttipittapa ibiltzeko irrikitan daudenak. Azken hauek badute Pirinioetara ihes egin eta bertan ibilbide berriak ezagutzeko aukera ezin hobe; izan ere, Rufo Ganuza eta Alicia Sanz de Acedo mendizaleek “El Pirineo Navarro, 50 itinerarios” liburua argitaratu berri dute. Bertan, bertzeak bertze, ezagunak ez diren zeharkaldiak aipatzen dira argazkiak, azalpenak, mapak eta fitxak barne.

Bidasoa ●

Bidasoaldean dantzan

Nazioarteko gazteen bortzgarren folklore jaialdia egingen da gaurdanik asteazkena bitarte

**Behobiako Eraiki
Dantza Taldeak
antolatzen duen
Bidasoaldeko V.
Nazioarteko Folklore
Jaialdia gaur hasiko da.
Argentina, Finlandia,
Letonia edota Errusiako
taldeak izanen dira
gurean.**



Argentinako Santa Fe de la Veracruz hiriko Mirian Cid dantza taldea. ● EGUNKARIA

FOKLOREAREN BIDEZ MUNDU-ko kultura ezberdinak errespetatzea eta ezagutaraztea da Eraiki Dantza Taldeak jaialdi honekin bilatzen duena. Kultura eta herrialde ezberdinetako dantza taldeen topaleku izaten da Bidasoaldea. Orain arte, Bera, Doneztebe, Elizondo, Etxalar, Irun, Hondarribia eta Hendaiak aterbetu izan dute jaialdia, baina aurten eskualdeko hainbat udalek ezetza eman ondotik, Bera eta Etxalar baino ez ditu bisitatuko Nafarroan. Gainerako emanaldiak Irun, Zumaia eta Zarautzen egingen dituzte bertaratutako taldeek.

Etxalarren emanaldia igandean izanen da, hilaren 22an. Meza nagusiaren ondotik, herriko plazan, Argentinako Santa Fe de la Veracruz hiriko Mirian Cid taldea eta Finlandiako Rovaniemi herriko Siepakat talde-

ak ariko dira, herriko Andre Mari taldearekin eta Eraiki talde antolatzailearekin batera.

Astelehenean Beran izanen dira berriz ere argentinarrak, eta eurekin batera Moskuko Razzadory dantza konpainia, herriko Gure Txokoa eta Behobiako Eraikirekin batera. Emanaldia Alzateko plazan izanen da, arratsaldeko 20:00etatik goiti.

Argentinako Mirian Cid taldea Santa Fe de la Veracruz hiritik dator. 1991an sortua, argentinarrak dantzak eta adierazpen folklorikoa berreskuratzea, kontserbatzea eta hedatzea dute helburu. Hego Amerika guztian zehar makina bat emanaldi eskainiak dituzte.

Errusiako Razzadory taldea hiriburutik dator, Moskutik. Fo-

klore dantza konpainia hau 1988an sortu zen, eta bertako zuzendari eta lehen koreografoa Errusiako Federazioko kide ezaguna da, Rinat Ganiev. Errusiako hainbat herrialdeko folklorea biltzen du konpainiak, eta Errusian ez ezik, Alemanian, Polonian, Grezian, Mazedonian, Ukrainian, Eslovakian, Turkian, Taiwanen, Hungarian eta Letonian arituak dira dantzan.

Finlandiako Siepakat taldea, oster, Ipar polotik dator. 1977an sortua, 500 dantzari eta musikari biltzen ditu talde honek. Euskal Herrira datorren taldetxoa orain zazpi urte sortua bada ere, Lappis Polka txapelketan sari ugari lortu dituzte. Norvegia, Alemania, Frantzia,

Mazedonia, Danimarka eta Grezian izan da taldea.

Eslovakiako Zornicka Zvolen hirikoa da, eta 1967tik dabil lanean. Eslovakiako folklorerik aberatsenetakoa duen eskualdetik datoz, eta nazioartean ibilbide oparoa du, sortu zenez geroztik 850 ekitaldik goiti eskaini baititu.

Bera eta Etxalarren ez ezik, talde guztiek gaur emanaldia eskainiko dute Irunen; bihar musikariek Irungo Milagrosa kaperan kontzertua emanen dute; igandean Etxalarren ez ezik Zumaian ariko dira; asteartean Zarautzen eta asteazkenean Irunen, jaialdiari amaiera emateko.

→ Jon Abril

Baztan

15 herrien biltzarra

ASTEURU HONETAN ELIZONDON Baztandarren Biltzarra besta ospatuko da. Ohi den bezala larunbatean gaupasa izanen da Laiotz taldearekin. Karriketan barrena Los Incansables txaranga eta gaiteroak ibiliko dira. Igandean goizeko 10etan artisauen erakusketa irekiko da, 12etan 15 herrietako orgen desfilea ikusgarria egingen delarik. Ondotik mutil dantzak izanen dira Elizondoko Foruen plazan. Eguerdiko 2 orduetan 1.600 pertsonen merkatuko plazan jateko aukera izanen dute. Aurtengo menuak aldaketa ttiki batzuk izan ditu piperrada, patata tortilla, haragia saltsan, pastela eta izozkia janen baita. Arratsaldean egingen den jaialdian bertsofariak eta abeslariak arituko dira, eta ohi den bezala muxikoak eta bertako dantzak dantzatzeko aukera izanen da. Aurtengo kartel lehiaketaren saria Polo Gartzia iruindarrak jasoko du jaialdian bertan, Polo aspalditik bizi da Elbeten eta bertze urte batean bigarren saria lortua zuen kartel lehiaketan.

Baztandarren Biltzarrean lehenengo aldiz ez da Mariano Izeta euskaltzalea izanen; hori dela eta, hutsik egingen ez zuen egunean omenaldi berezia egingen zaio. Senitartekoei oroigarri bat emanen zaie bazkalondoan Marianoren lana eskertzeko. Dantzaldia ere izanen da Triki Ta Ke taldearekin. Azkenik besta bukatzeko arratsaldean gauez Foruen plazan Etxakit taldea arituko da.

→ Rakel Goñi

Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



Zaharberrituko dizuet tresna bat; hizkuntzari dagokio, baina tresna da. Pulute du izena. Ez ibili alferrik, ez bilatu hiztegian, ez batuan ezta inorenean ere, ez baita azaltzen. Pulute: Pirinioaldean, aspaldian zamak buru gainean eramateko erabiltzen ziren artilez beteriko oihalak. Egun, ez dira erabiltzen, baina hizkuntzan atxikirik geratu da pertsona zenbaiten jakinduria eza adierazteko. Iraina da, adierazi nahi du, grafikoki, txapela, sonbreirua eramanez genuen bezala, buru barna hutsa ukanen baikenuen, gainea soilik ageriko biltzitan, balego, balitz...kaskoa hutsik baikenuen, ganbara soila, adimena umezurtz balego bezala. Finean, bururik ez eta txapela nahi.

Zorionaren bidean ediren ditugu hainbat pulute. Zorionak, ezaguna da, bi bide dauka: samurren jakinduria-

Tresna berri bat

tik urruti kokatzen da, nekezena bertutearen aldean, gertu eta bertan. Puluteak zoriontsuak izaten dira, usu, ignorantziaren morrontzan goxo eta soil etzanda ematen dute denbora, axolagabeak, munduaren gorabeherak haiekiko zer ikusia ez baitu. Halaxe uste dute beraiek, noski.

Errealitateak koxka, jauzi, soinu, likido, belar franko konprenigaitz izaten ditu. Bere magalean hamaika haridura, sendotasun, negar eta sagar kausitzen ahal dituzu, haizeak jotzen duenaren arabera, prefosta. Puluteek ezinean amilduko zaizkugu beti. Ez dute ikusiko bizitzaren balentria, ez eta gogaituaren zeharkako irribarrea. Azalean geratzeko agindua eman diote buruari. Sakontzeko esperantzak akiturik, gainean baraturik ikusiko ditugu, eguzkiak kiskaliz.

Puluteak arriskuak dira, aldamenen dauzkagu, gero eta ugariagoak dira. Ez da eritasun bat, are gutxiago kutsakorra, baina aldamenen ditugu; igogailuan diplomazia luzatzen diogu elkarri, futbol zelaian elkarrekin egiten dugu orroa, haien erosotasuna tentagarria bilaka liezaguke, irri zabala, giharrak laxo, haurraren loaldia.

Unibertsitateak salba gaitzala! , oihukatu duzu irakurle preziatu zaren hori, deusetarako oihukatu ere, azken finean pulute handienak, mardulenak goian daude, unibertsitateak gidatzen(?) edo gobernuetan.

Saudadeak salba gaitzala egin nahi dut aldarri, baina zarata honekin ez dago ene ahots ahula aditzerik. Bizkitartean, kili-bulu gabiltza. Hondarra heldu den kolaborazionean azalduko dizuet, pulutemendutik atera zaitezten.

Lizarra • Erdi Aroko hiria

Ega ibaiak zeharkatzen duen hiria Erdi Aroan murgildu da egunotan

Joan den astelehenean abiatu eta etzi igandean amaituko den Erdi Aroko astea laugarren urtez ospatzen ari da hirian arrakasta handiz. Zazpi egunotan zehar antzinako garai horren bizimodua gogorarazten duten ekitaldiak ugariak dira.

ANTZINAKO ARMARRIAK JOSI-ta dituzten banderatzokak, plazan titiriteroak, bufoiak eta trobalariak, tabernetan antzinako jakiak eta dendetan antigaleko tramankuluak. Jendeak ere arropa zaharrak janzen ditu: soineko luzeak, gerruntze estuak, koratiloak, kolorezko kapelak, abarketak... Dena Ega ibaiak zeharkatzen duen hiria Erdi Aroko giroan murgiltzeko. Izan ere, laugarren urtez jarraian tradizio bihurtu den aste hau ospatzen da Lizarran, arrakasta handiz. Erdi Aroko astea 1998. urtean ospatu zen aurreneko Gustavo de Maeztu museoan egiten den Erdi Aroko ikastaroen astea laguntzeko. «Jende anitz dator ikastaro horietara, atzeritarrak batez ere, eta haiekin bat eginez hiria ere garai horretako giroan murgildu ahal zela pentsatu genuen. Urtez urte jende gehiagok parte hartzen du ekitaldion, eta dendariak eta tabernariak egiten duten lana aipagarria da benetan», adierazi zuen Loreto San Martinek, Merkatarien Elkarteak kudea-

tzaileak. Elkarrekin hau da, hain zuzen ere, astearen prestaketaz arduratzen dena. Aurten zortzi milioi pezetako (320.000 libera) aurrekontua du egitarauak.

Ekitaldiak joan den astelehenean hasi ziren San Pedro elizan egin kontzertuarekin. Aipatzekoa da ere bart izan zen antzerki emanaldia: Rafael Alvarez «El brujo» aktorea izan baitzen hirian «El Arcipreste» lanarekin. Gaur, aldiz, iluntzeko 21:30ean Erdi Aroko herri afaria izanen da Santiago plazan. Bertan jateko 2.500 pezetaz gain (100 libera) Erdi Aroko arropekin jantzita egotea ezinbestekoa da. Azkenik, bihar eta etzi Erdi Aroko azoka ospatuko da Foruen plazan. Tartean ere folk kontzertuak, zine emanaldiak eta kale antzerkia ikusi ahal izan dira egunotan.

Karriketan giro paregabea

Dena den, aipagarriena karriketan ikusi ahal dena da. Aurten inoiz baino jende gehiagok parte hartu du aste bitxi honetan, eta dendariak ez ezik herri-



Lizarrako Erdi Aroko astean antzinako jantziak daramaten bi dendari
● KRISTINA BERASAIN

tarrek ere jantzi dotoreak ipini dituzte soinean. Lizarrako elkarteek ere parte hartzen dute ekitaldion; esaterako, musika taldeak karriketan aritu dira abesten, txerpolariekin batera. «Hiri guztia astebetez

Erdi Aroko gune bilakatzea nahi dugu. Finean, alor guztietan Lizarra Erdi Aroan murgiltzeko», erran digu Loreto San Martinek.

→ Kristina Berasain

herri aldizkariak

Haritz Urra

Euskara Bortzirietako hizkuntza dela berretsi dute herritarrek

Ttipi-ttapa aldizkariak, azken alean, berriki ospatu den ekitaldi baten berri ematen du; hain zuzen ere, uztailaren 5ean Beran Nafarroako Gobernuak euskaraz hitz egiteko eskubidea onartzea helburu duen adierazpen bat sinatzeko elkartu zireneko ekitaldia. Bortzirietako 180 bat lagunek sinatu dute adierazpen hori eta Bortzirietan eta oro har Nafarroa osoan euskaren egoera salatzea zuen helburu. **Herri** aldizkariak jasotzen duenez, adierazpen horretan Nafarroako Gobernuak zenbait lorpen zapuzteko erakutsi duen jarrera kritikatzeko da. «Gure herrietatik hainber-

tze aldiz eskatu dugu bertako mediku eta erizain berriak euskaldunak izatea», dio adierazpenak, «eta zenbait neurri lortuak genituen, baina berriki horiek ere hankaz goiti bota ditu Gobernuak. Gure herrietan euskara ofiziala da, eta hortaz, mediku, erizain eta administrazioako langile guztiekin euskaraz aritzeko dugun eskubidea bete dezan eskatu nahi diogu Gobernuari».

Horretaz gainera, irakaskuntzan egin diren aurrerapausuak ere galtzen ari direla jakinarazi du adierazpen horrek. «Irakaskuntzan ere euskarazko irakaskuntza

murritzeko, oztopatzeko eta zenbait tokitan galarazteko ere dekretu berria prestatzen ari dira, bertzeak bertze, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza amu erakargarri gisa paratuz». Adierazpenean irakaskuntzaren esparruari dagokionez ageri den zentzuzko irtenbidea Bortzirietan euskarazko irakaskuntza sustatzea da, «gaztelania eta atzerriko hizkuntzak irakasteari uko egin gabe». Bortziritarren eskaeraren gainean Nafarroako Gobernuak egingo duen irakurketa nahiko arina edo arduragabea izango ez ote den pentsatzen dute herritarrek.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Mihurak

Uztailaren 14a Mihura eguna da gure familian. Goizean bakoitzak bere aldetik ikusten du entzierroa. Gero anaiaren tabernan hartzen dugu bermuta, goizean ikusi duguna komentatzen (hor sortzen da aitarekin dugun eztabaida, ea arraza nahastu ote duten edo berdin segitzen ote duten. Guk ez dutela nahastu diogu, baina berak urtero bere beldurak plazaratu behar ditu. Inongo probarik gabe, noski). Gero ahal dutenek plazara joaten dira. Eguzkira zein itzalera. Ni itzalera amarekin eta aitarekin joan nintzen. Zeren, aizue, Mihurak oso handiak eta bitxiak dira. Ez dira zezanak (horretan jende asko oker dago); beste gauza bat dira... Horrexegatik, mihurak Padilla lepoan harrapatu eta konorterik gabe eramane zutenean, Zotoluko gaixoak errukitu ginen: Bi mihura hiltzera etorri eta bat-batean lau egokitzea ere! Bat-batean. Aurretik inongo seinalerik izan gabe. Ia-ia zezenketan osoa berarentzat. Antzineko garaian bezala. Perurenez oroitu nintzen orduan eta nola esaten zuen kilo bakar bat kilo asko direla beste berrehun kiloen gainean eta hortaz zaila zela erakustaldiari kiloak eranstea. Bada patruak Zotolukori aurretik zegozkion bi mihuren gainean, lepoan jasotako labankada batez, beste bi jarri zituztenean toreatzailearekin errukitu ginen. Amak, arriskua ikusiz gero, segituan «hil ezazu! Uil! Hil ezazu!» hasten zaio zezentzaileari, eta horrela eman zuen arratsalde guztia. Animalari emandako lehendabiziko bi kapotekadak ikusi bezain pronto «hil ezazu!» hasten baitzen. Aita, aldiz, Padillaren zauria hil edo bizikoa ez zela jakin ondotik, pozik ibili zen, «oso ongi! Lidiatu eta kito! Gaurkoan ez dago toreatzerik!» esaka. Ikusten duzue, amak aurretik esandakoa zen hori, baina pittin bat apainduagoa. Haien erdian ni «uil! aia!»-ka eta «ostiaaas! ufa!»-ka ibili nintzen arratsalde guztian. Tartean «ze nahasketa eta zer ostias!» esaten nion aitari, animaliak seinalatuz. Berak barre egiten zuen, «bueno, buenoo» marmartuz. Hiruren artean errioxako ardo botila on bat hustu genuen. Zezenketaren ondotik koadrillarekin hitzordua neukan. Euria ari zuen eta eguneko sentsazioek pixka bat mozhorturik iritsi nintzen. Mihurei buruz hitz egin nien pixka bat... baina hura ez zen haien interesekoa. Beste mundu batetik nentorren. ●



Pirinioetan zehar tipi-ttapa



Nafarroako mendialdeko bazter izkutuak gutarazten dituen liburua argitaratu berri da. Hiru Erregeen Mahaia, Orhi edo Lakartxela ttonttorretara nor edo nor hurbildu da inoiz; haatik, inork guttik izan du aukera mendien magaletan bakar-bakarrik, isilean, bidezidor izkutuetatik ibili, eta leku zoragarriak aurkitzeko. Sentsazio bertzelakoa da. Euskal Pirinioak osotasunean ezagutarazteko xedearekin Rufo Ganuza eta Alicia Sanz de Acedo mendizaleek liburu aberria kaleratu berri dute: «El Pirineo Navarro, 50 itinerarios».

B idaztietarako ezinbertzeko orriak bilakatzen dira Rufo Ganuza eta Alicia Sanz de Acedo El Senderista argitaletxean karrikaratu berri duten «El Pirineo Navarro, 50 itinerarios» liburua. Izenburuak adierazten duen moduan, Nafarroako Pirinioa da liburuaren ardatz nagusia, eta, bertzeak bertze, paraje eder horretako ezaugarriak, berezitasunak eta baldintzak erakusten dituzte 304 orrialdeetan zehar. Hala ere, Euskal Pirinioen baitan begirune osoz eta zorrotzaz ezaguteratu diren 50 ibilbideak osatzen dute liburuaren mardula. Zeharkaldi bakoitzaren mapa zehatza, fitxa osatua, argazkia eta azalpen xehea agertzen da, beti ere Euskal Pirinioak bere osotasunean ezagutarazteko.

Rufo Ganuza egilearen erranetan hauxe da, hain zuzen ere, liburuaren mamia. «Ibilbideak dira liburuan gauzarik aipagarriena, ibilbideak liburuari zentzua ematen diote, liburuaren izateko arrazoiak dira» adierazi dio NAFARKARIARI. Orotara 250 orrialdek osatzen dute ibilbideei zuzendutako tartea, eta bertan Euskal Pirinioetako txoko eta bazter guztiak sartzen saiatu dira egileak. Orreagatik Hueskako muga bitartean dagoen lurraldean zehar finkatu dute lan eremua, eta lur sail horrek eskaintzen dituen aukera anitzen artean sailkapen lan gogorra egin behar izan dutela aitortu dute. «Zenbatueziak dira Nafarroako Pirinioetan zehar egin daitezkeen ibilbideak. Guk hasiera batean

Izenburua: El Pirineo Navarro, 50 itinerarios
Egileak: Rufo Ganuza eta Alicia Sanz de Acedo
Argitaletxea: El Senderista
Prezioa: 2.800 pezeta

ehunka genituen, horietatik 100 aukeratu genituen eta azkenean 50. Gure uste apalean azkeneko aukeraketa egokia eta zuzena izan da; izan ere, zonalde guztiak sartzeaz gain, zailtasun ezberdineko ibilbideak ipini ditugu. Halaber, Pirinioetako aniztasun guztia biltzen da ibilbideotan».

Ibilbide zehaztu eta jantziak
Arestian erran bezala, ibilbide bakoitzaren aldamenean argazkiak, mapak, fitxak eta azalpenak paratu dituzte. Denak baliogariak suertatzen dira irakurlearentzat: argazkiek eroso egiten dute irakurketa, mapak informazio iturri baliotsuak dira, fitxak argibide ugari ematen dituzte eta azalpenak zehaztasun guztiak argitzen dituzte. «Fitxa teknikoan ematen ditugun datuak oso baliogarriak izaten dira. Jendeak aurretik aukeratu dezake txangoa zailtasun, denbora edo dena delakoaren arabera», aipatu digu Ganuzak. Fitxa teknikoetan ibilbidearen luzaera, iraupena eta zailtasunaz gain, desnibela, ibilbide mota, denborak eta aholkuak zehazten dira, bertzeak bertze.

Ibilbideez gain, baliogarriak izan daitezkeen bertzelako datuak ere ematen ditu liburuak aurreneko atalean. Tartean geologia, erliebea, hidrologia, eguraldia, landareta eta faunaren inguruko informazioa, alegia. Rufo Ganuzaren hitzetan, Nafarroako Pirinioek bere osotasunean dituzten aniztasun guztiak biltzen ditu. «Nafarroako Pirinioa bertzelako mundu bat da Pirinioen baitan. Bertan aniztasun eta aberastasun guztia biltzen da: goimendiak, bailarak, mendikateak». Landarediari eta faunari dagokionez ere espezie guztiak aurki daitezke bertan, egilearen aipuetan. «Basoko aberastasuna kontuan edukiz aipatu daiteke estatu osoan ez dagoela hainbertzeko barietaterik». Halaber Rufo Ganuzak mendien


inguruan dauden jendeak eta giroak ere zonalde bakoitzaren inguruetan aipatzen du. Baita intereseko zenbait datu aipatzen dira geografiekin batera. «El Pirineo Navarro 50 itinerarios» liburuak merkatuan bertze argitalpenen gainean eten dituen ekarpenak. Urriak dira ibilbideak dituzten argitalpenak, eta mapak eta aurkezten dituen gainera, aipatzen diren txango gehigarriak gabeak dira, eta ikuspuntu berrak dira. «Horrela egin nahi izan dugu bertan deskribatzen dena ez dagoen beharrekotik ibilbidea, baita ere bertan aurkitu daitezkeen enaren laburpenak puntu batera ailegatzea baino dugu nahi izaten, ttonttorrerak, baita ere gauza anitz dago ikusteko» zehaztu du Ganuzak.

Iratiko oihana-Belaguako harkaitzak, Kakuetako edo Arbaiungo zintzurak, Zurizako harresia, Izko, Leire eta bertze hainbat zoragarri aurkitu daitezke liburu orrialdeetan barna. «Hau da eskola berririk nahi eta inoiz aurkitu ez dutenak», erran digu egileak. «Galduta egon diren magikoak ezagutu ahal izanekoak» gaineratu du.

Rufo Ganuzak ematea den Alicia Sanz de Acedo liburuarekin idatzi du liburuak. Ganuzak liburuaren mendira joateko ohitura bere ematea dena ezagutu zuenean hasi ziren mendira joaten. «Oso ginen nolabait liburuak idazten, baina mendira abiatzen ginen. Gure emate dugu liburuak idazten» zehaztu du. Liburuak 2.800 pezetaren trukean daitezke liburudenda, eta, duela gutxi, mendizale berri zein trebatuenak erabiltzaren da.

Kristina Berasain

Rufo Ganuza Txasko



«Mendira joatea zaletasun bat da, pasioa, irrika, obsesioa, bizitzeko modu bat»

Rufo Ganuzak 33 urte ditu, eta Arabako mendialdean jaio bazen ere, hamar urte daramatza Lizarran. Ingeles Filologia ikasi zuen, eta urtetan hezkuntzan lan egin ondoren, orain dela bi urte erabateko aldaketa egin zuen bere lanean; geroztik, Lizarrako kanpinean egiten du lan koordinatzaile gisara.

■ Zein da zure mendirik gogokoena?
Zaila da bat bakarrik aipatzea baina liburuan aipatzen diren ibilbideetatik bat aukeratu nuke ez bairik gabe: 22.a, Belaguatik abiatu eta Budogia eta Ukerdi mendietara joaten dena. Nire gustuetara gehien hurbiltzen dena da: gogorrena da.

■ Zer da zuretzako mendira joatea?

Niretzako zaletasun bat da, pasioa, irrika, obsesioa, bizitzeko modu bat. Burmuina garbitzen dizu mendira joateak. Niretzako jasezina litzateke bizitza mendirik gabe. Nire medioa da, bertan sentitzen naiz erabat ongi.

■ Zein da mendira joateko gehien atsegin duzun garaia?

Udazkena eta negua. Udazkenean koloreen aniztasuna izugarria da eta gorri-horien nabardurak izugarri polita egiten du basoa. Neguan elurra egoten da, eta niri elurra izugarri gustatzen zait.

■ Mendiaz gain bertzelako zaletasunak dituzu?

Bai, jakina. Bidaiazaletasunak dut, irakurtzea, lagunekin egotea eta ardo gorria, jakina.

■ Beraz bi zaletasun uztartu dituzu mendia eta literatura?

Bai, hala da. Hasieran ez zitzaidan erraza egiten idaztea, baina aurrera egin ahala libreago sentitu naiz literatura sartzeko. Horrek ere atsegingarriago egiten du liburuak.

■ Zenbat denbora eman duzue liburuak idazten?

Urtebetean egin dugu dena. Ibilbideak, jakina, aurretik ezagutzen genituen baina berriro egin behar izan ditugu liburuak zorrotzaz egiteko. Gero, 10 hilabetetan idatzi dugu. Erromena izan da.

■ Gustura gelditu ahal zarete liburuaren emaitzarekin?

Bai, egia errateko oso kontent gaude. Gainera, eta 3.000 ale kaleratu badira ere, salmentak ere onak direla dirudi. Liburuak eskuetan izatea pozgarria da oso guretzako.

■ Bertze libururik argitaratzeko asmoa bai?


Tira, eskuartean Errioxako mendien inguruko proiektu bat dugu. Baina ez ditzut gehiago kontatuko.

ibilbideak GURE AUKERAK



BUDOGIA ETA UKERDIRA BELAGUATIK

Luzaera: 22,5 kilometro
Iraupena: 9 ordu eta 10 minutu
Desnibela: 1.720 metro
Zailtasuna: oso handia.



LAURENZE IBAIAREN JAIKOLEKUA

Luzaera: 10,5 kilometro
Iraupena: 2 ordu eta 35 minutu
Desnibela: 145 metro
Zailtasuna: eskasa



IRATIKO BASOA (LIZARDOIA)

Luzaera: 7,5 kilometro
Iraupena: 2 ordu eta 25 minutu
Desnibela: 410 metro
Zailtasuna: erdikoa

Festa

Ez dut pururik erretzen.

Hala eta guztiz ere, edateko kuba-librea, eta erretzeko baino eskuan ibiltzeko, airean astintzeko, purua eskatu nizkion San Remon zerbitzari lanetan ari zen gazte gatzik gabeari. Samuelek urtero sanferminetan San Remo alokairuan uzten dio gatzik gabeko gazte koadrila bati. Zerbitzari bizargeak minor-a eta Bacardi-z egin kuba-librea ekarri zizkidan. Nik, jakina, benetako purua, handia, eta benetako kuba-librea, La Habana-z egina, nahi nituen. Alta, ez nion deus esan. Ez nuen haserrik nahi. Festa eguna zen.

Kuba-libre lakarrari lehen zurrupada ebasteen ari nintzaion Samuel -Monte Carloko jabea- eta Gerardo -mus bikotekide ikurriña baino baskoagoa- hitzartu orduan tabernara heldu zirelarik. Zezenplazatik zetozen, Gutierrez ganadutegiko sei adardun, sei, hiltzen ikustetik. Ni ganadutegi arriskutsuago batekin lehian aritzetik nentorren, bi seme-alaba, bi, barraketara eramaketik. Samuel kazkartuta zegoen, nabarmen. Apal mintzatzen ohi da, eta uluka ari zen. Zuhur izaten ohi da, eta eskuaz bal ziharduen: «Hoge mila duro jokatu ditut, eta irabazten dudanarekin, guztiok Kariokara, beltzistekin gerria astintzera!». Bera ezezik, berarekin

geundenok ere putazale garela pentsatuko zuen ezagun askotxo zegoen inguruan. Hala ere, Samueli ez nion errietan egin. Festa eguna zen.

Tabernatik atera ginelarik, minor-a alkandora zuriko poltsikoan gorde nuen, geroago pizteko. Kostatu zitzaidan; izan ere, eskua ohiko aldera, bularraren ezkerreko aldera eramane nuen, eta neraman alkandorak eskuinaldean zuen poltsikoa. Aitarena zen,


Aznarez etxean egina, alkandora guztiek poltsikoak eskuin aldean zuten garaian. Ez nago alkandorako eskuinaldeko poltsikoarekin ohituta, sanferminetan eta oso noizean behin besterik ez baitut janzen, hura bezalako festa egun berezietan. Pilotalekuko armailetan alboko eserlekuan egokitu zitzaidan andreak ez zion erreparatu nire alkandorari, bai, ordea, ekitaldia telebistaz azaltzen ari zen **Xabier**

Euzkitzek hura bezalako festa egun baterako aukeratu janzkerari: kamiseta berde iluna, eta haren goinean lotu gabeko alkandora horixka. Andreak alboan zuen senarrari esan zionez, telebista-gizonak arropa Unzu Hombresen erosteari utzi beharko lioke. Hobe luke **Josetxo Lizartza** bezain dotorea izatea. Gipuzkoarra hortera hutsa zela. Nafarra, txukun-txukuna. Halako batean, senarrak espanituak uzteko esan zion, festa eguna zela.

Partida hastera zihoala, Gerardok **Patxi Zabaleta** ikusi zuen gugandik metro batzuetara, eta esan zuen harengana hurbilduko zela, eta Aralarrez uste zuena azalduko ziola. Gerardori eskatu nion zinegotzi ohia bakean uzteko, eta barrara hurbiltzeko, eta hiru kuba-libre ekartzeko. Serio aritu nintzaion: «Festa eguna da».

Gerardok hiru kuba-libreak ekarri zituen, purua alkandorako eskuineko poltsikotik atera eta piztu nuen, Samuelek 20 mila duroak jokatu zituen, andreak Euzkitzez hitz egiteari utzi zion, eta heldu zen festa, **Julian Retegik** Labriten jokatu azken partida. Eta ez zen festa izan, baizik eta partida kaskarra. Eta ez zen **Patxi Ruizen** errua izan, baizik eta enpresarena. Eta kaben dena.

● EDURNE KOCH



Xabier Euskitze aurkezlea.

● JOXE LACALLE



Julian Retegi pelotaria.



panpilonia zirkus

Joxemi Lopez, barkilleroa

Pello Argiñarena

Hemezortzi negu bete ditu Estafeta karrikan gaztainak erretzen. Hamaika uda daramatza barkilloak saltzen Sarasate Pasealekuan.

Barkilloa, txalupa txiki bat al da?

Txalupak bezala barkilloak ere ura behar du, baina horrekin batera, irina, azukrea eta olio ezinbestekoak dira opil goxo hau egiteko.

Beti ere, itsasuntziko kapitainaren txapela daramazu?

Mozorro denda batean erosi nuen. La Pamplonesa musika bandakoek eramaten dutena da. Txapela identifikazio ikur moduan erabiltzen dut. Hasieran, barregarri geratzeko beldurra neukan. Orain, berriz, harro nago.

Barkilloak bizkarrean hartuta harat-honat ibiltzen al zara?

Tailerrean egiten ditut barkilloak goizean eta arratsaldean Sarasate Pasealekura

ekartzen ditut guztiak. Hemendik ez naiz mugitzen. Oso toki aproposa da saltzeko. Jende asko dabil joan-etorrian eta hainbat hiritarren topalekua da. Garai batean, ordea, kalez kale ibiltzen ziren.

Donutsak baino garestiagoak al dira?

Betiko prezioan saltzen ditut. 200 pezeta balio du poltsa bakoitzak. Lehen, beste bati erosten nizkion eta orain, nik neuk egiten ditut Taxoareko lantegian. Horrenbestez, irabaziak handiagoak dira eta oso litekeena da salneurriak merkatzea.

Barkilloak, gosarian edo meriendan?

Arratsaldean saltzen ditut eta hemen bertan jaten ditut jendeak. Hala ere, zenbait etxera eramaten dituzte gosari, postre edo aperitibo moduan jateko.

Egiaren esateko, gofreak eta taloak nahiago ditut.

Barkilloak txistorrarekin batera egiteko asmorik ez daukat. Dena den, datorren ne-



Joxemi Lopez Sarasate pasealekuan aurki daitekeen barkilleroa.

● MIKEL SAEZ

guan txokolatz eta ezez eginikoak saltzen hasi nahi dut eta hurrengo udan izozkiarekin ere. Tamalez, Udalak behin eta berriro ukatzen dit almendra garrapinatuak, krispetak eta edariak saltzeko baimena.

Udan izozkiekin lehietzea ez al da oso zaila?

Noski baietz. Bero handia egiten duenean izozkiak barra barra saltzen dira. Barkillo gehiago saltzen dut tenperatura arintzen denean.

Neguan ere nahiko lan izanen duzu gaztainekin?

18 urte daramatzat Estafeta karrikan gaztainak saltzen. Barkilloen aldean oso lan neketsua da. Etengabe erretzen egon behar duzu eta hotza ere ez dut sobera maite.

Gaztainek eta barkilloek bizitzeko adina emanen al dute?

Aurrera jarraitzeko behintzat, bai. Lehen, beste lan osagarri batzuetan ere ibiltzen nintzen baina orain ez dut horren beharrik. Gainera, barkillero bakarra naiz Iruñean.

Non du barkilloak bere jatorria?

Frantzia, Japonia eta Argentinan oso ezagunak dira. Hala ere, guk ezagutzen ditugun barkilloak, Kantabriako Montes de Pas inguruko tradizioari eutsi diote. Iruñera iritsi ziren lehenengo barkilleroak bertatik etorri ziren.

Anibal Soravilla

ALBOKARIA

«Alboka etengabe arnasa hartuz eta botaz jotzen da»

Mendeetako soinu tresna urtetan itzali bazen ere, egun, bederen, aditu daiteke gure arbasoek erabili izan zuten albokaren oihartzuna. Zenbait pertsonak egin ahalegina dela-eta garaietako soinua berreskuratu egin da, eta Anibal Soravilla bezalako gazteen kemena ikusirik etorkizunean ere entzunen dela ziurtatuta dago.

ANIBALEK USTEKABEAN ENTZUN ZUEN albokaren soinu aurreneko eta instant horretatik aitzina erabat liluratuta gelditu zen musika xarmangarri horrekin. Alboka eskuratu eta bakar-bakarrik ekin zion ikasteari. Musika tresna honen historia, berezitasunaz, zailtasunaz eta egoeraz solastatu gara berarekin.

■ **Nola izan zenuen albokaren berri?**

Orain bortz urte egiten ditu Exkixu taldearen kontzertu batera joan nintzela eta bertan entzun nuen alboka aurreneko, Iñigo Ibarretxeri entzun nion hain zuzen ere. Nik klarinetea jotzen dut eta albokaz hitz egiten entzun izan nuen aurretik, arnasa hartzeko duen teknika bereziaz hain zuzen ere. Hala ere egun hura baino lehen ez

nuen aukerarik izan alboka bat ikusteko, eta are gutiago bere soinu zuzenean entzuteko. Erabat liluratuta gelditu nintzen eta handik gutira musika denda batean ikusi nuen. Ezin izan nion erosteari uko egin. 25.000 pezetaren truke (1.000 libera) eskuratu nuen.

■ **Behin alboka zure eskuan zenuela nola ikasi zenuen jotzen? Izan ere, oso zaila omen da...**

Albokaren berezitasuna soinu egiteko beharrezkoa den arnasa teknikan datza. Arnasa etengabe hartuz eta botaz jotzen da, eta soinu, beraz, etengabea da. Uda oso batez arnasaren teknika ikasten eman nuen. Plastikozko ur botila bati zulo bat egin nion, erdi-erdian. Etengabe haizea botatzen saiatzen nintzen, eta, horretaz

ziurtatzeko, nire behatza ipintzen nuen zulo txoan. Pixkanaka-pixkanaka zuloa handiagoa egiten nuen, eta behin alboka jotzeko gai nintzela sentitu nuen alboka hartu nuen nire eskuetan.

■ **Zenbat denbora eman zenuen gero alboka jotzen ikasi arte?**

Behin arnasaren teknika barnerratu eta gero, hilabete eman nuen albokari soinu ateratzea lortu arte. Zaila da, batez ere ardura gehiago ipintzen duzulako arnasaren kontuan soinu egitean baino. Mekanizatu egin behar den gauza da. Ordu asko eman nituen ondo egin arteraino.

■ **Albokak egiten duen soinu oso berezia da, zuk nola definituko zenuke soinu hori?**

Hagitz zaila da. Oso berezia da, ez da ozena, ezta apala ere; ez da kirrinkaria ez ezia, baina gozoa da kirrinkaria baino. Gainera, berezia da bi soinu batera egiten dituela ematen duelako, bi alboka daudela ematen du.

■ **Bakar-bakarrik ikasi ahal duzu alboka jotzen?**

Bai, hasiera batean bai. Alboka erosi nuen dendan bertan Jose Mariano Barrenetxeak idatzi liburua oparitu zidaten. Bertan albokaren ikerketa zabalagoa da, hala nola ikasteko metodoa eta zenbait partitura. Horrekin digitazioa ikasteko konpondu nintzen, hots, behatzen mugimendua. Hala ere, orduan ez zen albokaren inguruko bertze argitalpenik. Orain bai, orain liburu gehiago dago, eta eskuragarriagoak dira. Interneten ere web orrialdea zabaldu du Ibon Koteronek.

■ **Alboka garai bateko musika tresna da, zure ustez, musika tradizionala jotzeko**



KRISTINA BERASAIN

soslai

Anibal Soravilla Lizarrakoa da eta 23 urte ditu. 18 urterekin hasi zen alboka jotzen, eta klarinetea ere jotzen du Lizarrako Udal Bandan. Musikari fina izateaz gain kirolari sutsua da eta irakasle ikasketak kirol espezialitatean egin zituen. Egundik Lizarrerria kiroldegian egiten du lan.

baino balio ez duena, edo, haatik, musika berria ere egin daiteke albokarekin?

Duela urte gutxi arte albokaren musika herriko jaietako ekitaldietan baino ez zen erabiltzen. Bere interpretazio eremua ere murriztua zegoen. Gainera, erran beharra dugu joan den mendean anitz jotzen bazen ere mende honetan zehar bere erabilpena gutxituz joan dela, ia desagertzeraino. 70ko hamarkadan Leon Bilbao eta Txilibrin albokariak egin grabazioei esker bere soinuaren biziraupena lortu da. Grabazio horietatik aitzina albokaren erabilera zabaldu egin da gutxinaka-gutxinaka eta gaur egun Kepa Junkera, Juan Mari Beltran eta Ibon Koteronek musikariei esker albokaren eremua zabaldu egin da bertzelako musiketara.

■ **Hala ere, eta albokaren erabilera anitz zabaldu bada ere, ezin aipatu daiteke musika tresna ezaguna dela, ezta?**


Egia erran, azken hamar urteotan izugarri hedatu da alboka, ez bakarrik bere erabileran baita musikaren kalitate eta kantitatean ere. Egundik herri musikaz gain, konposizio berri ugari dago eta bertze musiketara egokitu izana garrantzitsua izan da oso. Duela hamar urte oinarritzko zazpi notak baino ezin ziren jo, eta egundik gehiago egiten dira, sostenituak barne. Hala ere, jende askok ez du sekula albokaren soinu entzun.

■ **Alboka ikasi eta gero, jotzeko aukerarik daukazu orain?**

Jendaurrean jotzea ez da erraza izaten. Aukera guti dago. AEK egunean albokariak bilkura egin genuen eta Euskal Herri osoko 45 albokari bildu ginen. Hortaz aparte, zaila izaten da. Musika berrietara egokitze lanean oraindik asko dago egitear.


→ Kristina Berasain

KRISTINA BERASAIN



Alboka Euskal Herrian erabiltzen den haize instrumentua da, funtsean klarinetearen kidea. Musika tresna hau zurezko atal biribil erdi batez, honetan finkatzen diren kanaberazko bi hodiz eta haien buruetan itsasten diren bi behi adar zatiz osatua da. Adar batek, handiak, pabilioi funtzioa du. Adar txikia, berriz, putz egiteko erabiltzen da, eta haren barruan mihia daude. Alboka arnasa etengabe hartuz eta botaz jotzen da, eta soinu etengabea da beraz. Jatorriz artzain giroko instrumentua dela uste da.

Albokaren berri ematen duen aurreneko datua Aita Donostiak 1943. urtean idatzi liburuan agertzen da. Bertan zera aipatzen da: «Arrasaten dantzatarako eta abestietarako danbolinak, albokak eta panderoak erabili ziren».



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Mozorroarena

Ustez txuriz jantzita baina horren ordez kolore definigaitz baten azpian pasatzen zen Estafeta karrikatik behera. Erosketak egiten ari ziren edo mezetatik zetozen hiritar zintzok harriduraz beterik begiratzen zuten erdi balantzaka etxe aldera abiatzen zen gizabanako hura. Uztailaren 15a aspaldi samar hasia zen, baina zeinbatzuk oraindik ez ziren horren jakitun, antza.

Bere keria guztiak berreskuratuta, hiria normaldua zen berriro ere, Donejakue bidetako ezinbesteko ardatza, Erromaren gotorlekurik kutunena. Ongi jantzitako familien erresuma, hausterik txikiena barkatzen ez duten gizarte epaile gupidagabeen eremua. Berriro ere eskuina bere izena harrotasun osoz hartzen duen herri txikia zen, urteen poderioz hiri bihurtua.

Ordu eskas batzuk lehenago oso bestelakoa zen dena, eta Estafetatik behera jaisten ari zen izaki hura bere ingurukoekin armonia osoan bizi zen, itxuraz bederen. Edozein bazterretan lo egiten zutenak, gau-eguneko abeslari nekatu ezinak, substantzia guztien irensleak, plazak eskenatoki erraldoitzat hartzen zituztenak, edozein moztorro lotsagabeki jantzen zituzten haiek, denak ziren bere lagunak. Orain, ordea, pertsonaia bitxi horiek guztiak desagertuak ziren, haizeak eta hamalau osteko madarikazioak eramanak. Dagoeneko ez zen zilegi karrikan lo egitea, desorduetan abestea eta goiz-goizean oheratzea, anarkia garaia amaitua zen, eta ordu gutxitan ordenak bere agintea ezarria zuen berriro ere, behin betirako akaso.

Hala ere, Estafetatik behera ari zen gizabanako horrek ezin zuen ulertu zergatik ari zen mundu osoa berari begira, eta zergatik egiten zuten alde batera bera pasatzean. Ingurukoari ezikusierena eginez, gero eta gutxiago falta zela ari zen bere kolkorako, etxera ailegatu, oheratu eta hurrengo egunetik aurrera hamaika hila-bete eta hiru astez iraunen zion moztorro dotorea jarriko zuen berriro, normaltasun itxura emanen ziona, pertsona errespetagarria eginen zuena.

MUSIKA

- **Zangotza:** Txutxin Ibañez y Los Chihuahua taldeak kontzertu eskainiko du gaur, El Pilar tabernan, gaueko 24:00etan.
- **Olazagutia:** Herriko plazan Peta Zeta musika taldea entzun ahal izanen da gaur iluntzean, 23.30ean hain zuzen ere.
- **Etzarri Aranatz:** Gaueko 22:00etan emanen dio hasiera Pablo Liquido kantariak, gaur, herriko plazan eskañiko duen kontzertuari.
- **Auritzberri:** Anje Duhalde eta bere taldeak kontzertua emanen du bihar gaueko 23:00etan herriko frontoian.

ANTZERKIA

- **Zangotza:** Nafarroako ipuin eta kondairak antzerkilana taularatu du bihar Kontalariak taldeak Arkupeetako enparantzan gaueko 22:00etan puntu-puntu. Bertan Pirene, Mairuaren Haizpea, Goñiko Teodosio eta Maiteminduko Lamia ipuin zaharrak aditu ahal izanen dira.

UDAKO ZINEMA

- **Olaz:** Igandean, gaueko 22:00etan, *Auzoko animaliak* filma pantailaratuko dute, euskaraz, herriko plazan.

ERAKUSKETAK

- **Elizondo:** Ana Mari Marin Elizondoko margolariak udaoro bere etxean paratzen duen erakusketarekiko du gaurtik irailaren 2a arte. *Oroitzapenak nire txokotik. 1953-1997* da erakusketaren izena.
- **Bertiz:** Gaur ere ireki egin dute Bertizko Jaurerrian bertako parke naturalaren inguruan antolatutako margo lehiaketaren koadroak. Erakusketak berezitasun aipagarri bat du: ikusleek gustuko duten margolanaren aldeko botoa eman ahal izanen dute. Epaimahaiak boto

guztiak izanen ditu kontuan koadro garailea aukeratzeko garaian. Lanak iraileko aurreneko astebururarte ikusiko dira.

- **Arribe-Atallu:** Juan Gorritiren *Zurginaren lapitza* izena daraman erakusketa zabaldu da gaur Batzarren. Bertan artistaren azken lanak ikusi ahal izanen dira irailaren 2ra arte.

IKASTAROKAK

- **Erroibar eta Auritz:** Hilaren 24tik aitzina, eta abuztuaren 17a bitartean, umeendako joko eta

eskulangintza tailerrak egingen dira euskaraz 4 eta 10 urte bitarteko umeendako.

- **Bera:** Klown ikastaroa izanen da Kultur Etxean, BAI antzerki taldearen eskutik. Igandean abiatuko da ikastaro trinkoa, eta gaur zortzi amaituko da.
- **Olaz:** Plastilina ikastaroa antolatuko dute Egues bailarako ludotekak gaur arratsaldeko 18:30erako.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Umeentzako Antzerki

Testuen X. Lehiaketa abiatu du Nafarroako Antzerki Eskolak. Egile bakoitzak gehienez hiru testu aurkezten ahal ditu, ondoko betebeharrekin: argitaratu gabeko originalak izatea eta haurrentzako antzezlan batek iraun ohi duena irautea. Lanak abuztuaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira antzerki eskolan (San Agustin, 5, 31001 Iruñea). Diru sari bakarra finkatu da kategoria bakoitzean (euskara eta gaztelania), Udalak emana: 250.000 pezeta.

• JOXE LACALLE



MERKEALDIKO KOLOREAK

Txuria eta gorria. Gure niniek bi kolore horiek baino ez dituzte ikusi azken egunotan, eta begien bertsarearen barru-barruraino sartu zaizkigu. Txuria eta gorria. Dendetako kristalen bertzealdean dena egon da txuri-gorritan. Orain, aldiz, San Ferminetako biharamuna oraindik ere guztiz desagertu ez bada ere, Iruñeko Alde Zaharreko itxura bai aldatzen hasia dela, eta dagoeneko kolore sorta guztia ageri da karriketan. Hala ere, udako kolore bizi-bizien nabardura guztiak ondo somatzeko dendetako leihoak ere garbitu egin behar izaten dituzte, (San Ferminetako zikinkeria ez baita txuri-gorria izaten). Horretan dihardute dendariak, eta jakina, merkealdiak iragartzen dituen kartel dizdiratsuak ipintzen.

Guk txuri beltzean baino ez ditugu ikusten, baina itsutzeko modukoak dira.